

Ekainaren 1ean sagardo jala egingo da


go da. Bestetik, lehendabiziko aldiz, sagardo eguna antolatu da. Guztira, Gipuzkoako 63 ekoizleren sagardoa dastagai izango da Intxaurrendoko Justo Elizaran pasealekuan ipiniko den estalki erraldoan. Aurreko urteetan bezala, datozen egunotan sukaldariak eta gastronomia zaileak izango dira protagonista Intxaurrendon, eta jakina, ospe handiko sukaldariak ere ez dira faltako: Kataluniako Ferran Adria, Alacanteko Las Rejas jatetxeko Manolo de la Osa, Madrilgo La Broche jatetxeko Sergi Arola... Ezin aipatu gabe utzi, noski, etxeko maisu handiak: Arzak, Martin Berasategi, Subijana... Hiru hauek, Adria handiarekin batera, sukaldaritzaren erakustaldi bana eskainiko dute. Gainera, Mexikoko Tezka jatetxeko Bruno Oteiza donostiarrak bisitaldia egingo digu, bertako berezitasunen berri emateko. Lapiko eta sukalde tresnen zarata artean, helduek dastatze afarietako jakiekin gozatuko dute. Haurrek, berriz, Larrotxene kultur etxean antolatuko diren sukaldaritzaren tailerretan gozatuko dute gehien. Sukaldaritzaren txikienekin Idiazabal gazta, txistorra, gozokiak, izozkiak eta pateak izango dituzte ikasgai. Hain txikitatik sukaldean hasiz gero, sukaldari trebe izateko aukera dute neska-mutikook. On dagozuela guztioi!

On dagizuela

Hilaren 27an, astelehena, Intxaurrendoko Gastronomia Astea hasiko da. Ekintza berriak bildu ditu 12. edizioko egitarauak. Batetik, Bikondoa fa-

milaren laguntzari esker, Cocin Art izeneko erakusketa egingo da. Bertan dastatze saioak egiteaz gain, hainbat artista eta argazkilariren lanak ikusteko aukera izan-

Giokela, Okel Garbia Muturretik Buztanera



MAIALEN HARATEGIA
Karmelo Etxegarai, 10
ANTIGUO Auzoa

SUPER MATIA-HEZURRAK
Juan de Garai, 5
ANTIGUO Auzoa

HUEGUN HARATEGIA
Bretxako Merkatua, 10
BRETXA

JESUS EUGI HARATEGIA
Bretxako Merkatua, 6
BRETXA

